

ARGAZKIA ERREALTATEAREN ISLADA



DABID ARGINDAR

June Garmendia, Neide Astigarraga eta Haizea Telletxea

Argindar izen artistikoarekin, argazkilari bizi bat da, Donostiarra. Kirol argazkietan, kultur argazkietan eta paisai argazkietan trebea dena. Frontoietako argazkietan aditua, herriko historia transmititu nahiean.

BEGIEK IKUSTEN DUTENA IRUDI BILAKATUZ



Gipuzkoan hainbat argazkilari profesional ditugu, Andoainen baita ere, adibidez; Dabid Argindar, Donostiarra, gaur egun Andoain herrian bizi dena, Laliga, Aspe pilota, Bastero kulturgunea, Kotoien emakumeak, Aiurri, Donostiako hipodromorako.... lanak egin dituen argazkilaria.

Andoain zehar ere hainbat Argazkilari desberdin ditugu, bakoitzak estilo eta helburu desberdinarekin egiten duena lan.

Zer da argazkilaritza?

Argazkilaritza gaur egun oso begi-bistan dugun baliabidea da, bertan, gainazal, material, paisai, produktu edota edozein tresnako irudi finko bat grabatzeko eta plasmatzeko prozesu edo arteari deitzen zaio. Argazki kamara baten bitartez, errealitateko irudi bat harrapatzea eta zeinu elektroniko batean bihurtzea izango litzateke. Argazkilaritza barruan hainbat estilo edota atal desberdinak daude, hau da, argazki guztiak ez dira helburu berdinarekin edota modu berdinean ateratzen.

Adibidez, argazkilaritza soziala edota gastronomikoari erreparatuz, oso helburu zehatz eta desberdinarekin gauzatzen dira. Bi estilo horien gain, beste hainbat mota daude; adibidez, soziala, kirol argazkiak, egunerokoak, informazioa adierazten dutenak, kulturalak, produktuak, moda, arkitektura....



EUSKAL KULTURA IRUDIETAN AGERRARAZI

Euskal Herriko kultura euskaraz, zein historian zehar bertan hitz egin diren beste hizkuntzetan egiten diren multzoa da. Horri, dagokionez, gaur egun, argazki asko eskura ditugu, argazkilari bai profesionalek eta bai zaletuek behin eta berriz argazki kulturalak egiteko ohitura izaten dute. Euskal folkloreari erreparatuz, euskal dantzak, antzerkiak, musika euskalduna, euskal paisaiak... Irudietan plasmatzeko helburu desberdinekin egiten ohi dituzte.



Gaurkoan, frontoietan ezarriko gara, frontoiak hain zuzen, euskal kultura barnean daude. Dabid Argindar argazkilari profesionalak, frontoien inguruko atal bat sortu zuen. Argazki bilduma hau, "Paretan mintzoa" izenekoa da, bertan euskal herriko frontoiei argazkiak atera eta irudi bidez Euskal Herriko frontoien berezitasunak baita historia kontatzen joan da.

Frontoiak gure kulturaren osagaiak dira. Ez dago herririk, txikia izan arren, frontoi bat ez duenik. Pilotan jasotzeko duten funtsezko funtzioaz gain, gizarte-bizitzan, artean eta folklorea errotutako espazioak dira; bertan lekua har dezakete mota orotako ekitaldi sozialek. Dituzten erabilereaz gain, eraikitzen diren tokiko arkitekturaren nahiz nortasunaren erakusgarriak dira frontoiak. Dituzten ezaugarriak ematen digute sortu ziren tokiari buruzko jakitea: neurriak, formak, diseinuek, koloreak, tipografiak, eraikitze materialak.... Dela Baztango harri gorria, dela Gipuzkoako soiltasuna edo Iparraldeko kolorea, aniztasunak bakar bilakatzen du frontoi bakoitza. Bakoitza da berezia: horma bakarrek, ezker paretakoa, baita eskuin paretakoa ere, elizako arkupean eraikitakoa, herriko plazakoa, mendian lekutatakoa...

Dabid Argindar.



**"PILOTALEKUETAKO
HORMEK, HISTORIAZ,
KULTURAZ ETA
NORTASUNAZ HITZ
EGITEN DIGUTE"**



KIROL ARGAZKIAK

Beste argazki mota bati begiratzuz kiroleko argazkiak ditugu. Denbora pasatzen doan heinean, geroz eta garrantzitsuagoa da argazkilaritza kirolean. Iraganeko argazkiekin alderatuta, nabarmendu daiteke zein nolako aldaketak egon diren sektore honetan. Adibidez, gaur egun, kamara dexente aurki ditzakegu lehen mailako futboleko edozein partidatan.



Eredu modura, Argindar dugu. Argindarrek, lehen mailako futboleko argazkilaria da, gehienbat ligaF, nesken futbola, baina mutilen futbolarentzat ere lan egin du, partidetako argazkiak ateratzen baita "laliga Experience" eta "VIP" jendearen esperientziako argazki bildumak egiten. Baita ere, Donostiako hipodromoan, aspe, pelotako pilota partidetan, zesta-punta partidetan, txirrindularitza lasterketetan, errugbiko partidetan... hau da, kirol ezberdinetako argazkiak egiten oso trebea da. Bestalde, Bastero kulturgunean dauden ikuskizun desberdinetako argazkilaria ere bada. Hauen artean, dantzak baita beste ikus entzunekoak. Argazki mota hauek gehienetan ez dira denbora pasatzeko egiten, argazkilarien lana delako. Argazkiak ez dira edozein modura ateratzen eta modu espezifiko batean atera behar dituzte argazkiak, zehatz eta zorrotzagoak izan behar dira argazkiak ateratzeko garaian, hauek beste helburu garrantzitsuago bat dutelako, gertatukoa kontatzea hain zuzen.



“Argindar, hitz joko bat da, Argiaren Indarra”

Dabid Argindar, argazkilaria

Zergatik hasi zinen argazkilaritzan? Txikitatik egiten duzu?

Bai, txikitatik gustatu izan zait argazkilaritza, oso gazte nintzenean nire aitak kamara bat eman eta argazkiak ateratzen hasi nintzen, ondoren argazkilaritza ikasi nuen.

Zein mezu adierazi nahi duzu zure izen artistikoarekin?

Oso argi nuen nire izen pertsonala ez nuela jarri nahi, batez ere interneteko era hasi zenean. Orduan izen bat asmatu nuen, Argindar, hitz joko bat, argiaren indarra. Argazkilaritza izena “foto/grafia”-tik dator, Greziarrez “foto” -k argia adierazten du eta “grafia” idaztea edo grabatzea da, orduan argiarekin marraztu edo idatzi nahia da, hori liteke arrazoia.

Zer motatako argazkiak egiten dituzu?

Lanerako egiten ditut kirol argazkiak, antzerkiak, kontzertuak, dantzak, hau da, kulturalak, baita, hipodromoko argazkiak... Gainera, paisaiak, itsasoa, mendiak... ere egiten ditut, horiek gustu pertsonalerako egiten ditut, baina saltzeko ere egin ohi ditut.

Frontoien atalari dagokionez, zerk ekin zizun atal hori asteak?

Gai bat nahi nuen nire proiektu pertsonala egiteko eta egun batean Urbasara joan nintzen elurretako paisaien argazkiak egitera, eta bertan, urbasako mendilerroan frontoi bat elurtuta topatu nuen, bitxia iruditu zitzaidan eta argazkiak egiten hasi nintzen. Horrez geroztik hasi nintzen frontoien bila eta gero segida batean bihurtu zen. Iruditu zitzaidan gure herriko atal garrantzitsuak zirela eta horiei argazkiak ateratzerakoan gauza asko kontatzeko zegoela.

Zer transmititzen dizute frontoiak?

Gure historiaren kultura, gure arbasoak elkartzen ziren frontoietan, frontoia ez da bakarrik pelotan jolasteko, frontoietan gauza asko egiten ditugu, afariak, bertso saioak, ekintza asko, azkenean herrietan arnaguneak dira eta jendea elkartzeko plaza bat da.





Frontoi mota desberdinak al daude, a la denak berdinak dira?

Oso desberdinak, non topatzen ditugunaren arabera, Nafarroan, Iparraldean... Mota desberdinetakoak daude, pareta batekoak, bikoak, hirukoak, dena itxiak, zabalak, estuak...

Zer helburu duzu frontoiei argazkiak eginez?

Historiaren parte bat kontatzea. Helburua hasieran artistikoa zen, baina gero ere antropologikoa ere bada, frontoi bakoitzak bere historia dauka, bere nortasuna eta hori argazkietan erakustea zen nire helburua.



Hipodromoko argazkiak eta kirolarienak ere egiten dituzu, zergatik, gustuko duzu?

Bietatik, gustuko ditut eta lanagatik sortatu zait bai hipodromoan eta kiroletan lan egitea. Beraz bi gauzen nahasketa da, gustua eta lana.



Argazkilaria izanik, zein lan garrantzitsuetan parte hartu duzu? Edo gaur egun zein lanetan ari zara?

Garrantzitsuak denak dira niretzako, nire proiektu pertsonala niretzako ere oso garrantzitsua da. Gaur egun, bastero kulturgunearentzako kontzertuak, antzerkiak, dantzak, hipodromoko zaldi lasterketak, aspe pilota, futboleko laligarentzat, kotoiaren emakumeak...



Gaur egungo gazteei zer esan zenieke?

Gaur egun gazteak argazki asko ateratzen dituzte, baina uste dut asko pentsatu gabe egiten dituzuela, argazki kamera eta mobila atera eta bi aldiz pentsatu gabe argazkiak ateratzen dituzte eta horrekin esan nahi dut, pixka bat gehiago ikastea argazkiak nola egiten diren, teknikak badaudela, enkoadratzeke moduak badaudela, adierazteko moduak. Hainbeste argazki egiten dituztenez, pixka bat ikasiz gero, erraz argazki hobeak ateratzeko gai izango direla.



ARGAZKIAK NONDIK NORA

Gaur egun argazkien erabilerak sekulako aurrerapena izan du, gehienbat sare sozialei esker. Gaztetan ohikoena etengabe argazkiak ateratzea da, leku bat edo beste. Mobilarekin 100 argazki atera, gustukoena aukeratu eta instagrameko “storietara” igotzea. Baina non daude teknikak? enkoadraketa moduak, adierazteko moduak etab. Gaur egungo gazteei argazkilaritza mundu zabaleko teknikak bost axola zaizkie. Garrantzitsuena beraien itxura baita, ea postura egokian dauden edo ea argazkietako “estetika estereotipoak” betetzen dituzten.

Bestalde, argazkietan paisaiari garrantzia eman ordez argazki horizontal bat aterata, ohikoak diren argazki bertikalak ateratzen dituzte. Horrekin lotuta, argazkiaren hainbesteko erabilerak benetako argazkilarien lana ez balioztatzea ondorioztatu du.

“Gure mobilarekin ateratzen ditugun argazkiak oso politak dira eta argazkilarienak zer garrantzi dute? Berdinak baitira.” Hau da gaur egungo pertsona askoren pentsamendua, argazkilarien beldurra. Beraiek benetako irudiak ateratzen dituzte, dena kontuan harturik, enkoadraketa, planoak, argia, espresioa... Lan gogor hori balioztatu ordez, ez diogu garrantzirik ematen. Argazkilari asko kexatu egiten dira horren inguruan, normala baita.

